



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/04/27

Laneko arriskuen prebentzioaren inguruko "begirada" hoberenak Batzar Nagusietan

Bizkaiko Batzar Nagusiek beste erakusketa bat zabalduko dabe Bilboko euren egoitzan. Mutualiak laga dauen "Prebentziozko Begiradak" argazki erakusketeak, mutua horrek antolatzen dauen Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruko argazki lehiaketaren hamahiru edizinoetan aurkeztu diran mila argazki baino gehiagoren artean aukeratutako hogeita hamar argazki inguru jasoten ditu. Ekimenak Bizkaiko Batzar Nagusien eta Osalanen (Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Euskal Institutua) laguntzea dauka.

Erakusketak, laneko inguruneetako prebentzioari eta leku horreetan hartzen diran arriskuei buruzko oso ikuspegi anitza eta iradokigarria jasoten dau, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Nazinoarteko Egunaren bezperatan, hain zuzen be. Erakusketaren aurkezpeneko ekitaldian Ana Otadui Batzar Nagusietako Presidentea, Jorge Arbaiza, Mutualiako Eraketa Zuzendaria, eta Alberto Alonso Osalaneko Zuzendari Nagusia egon dira.

Mutualiaren argazki lehiaketea 2004an sortu zan, prebentzioaren kulturea bultzatzeko, laneko istripugarritasunaren kontra kontzientzietako eta laneko ingurune seguruagoak eta osasungarriagoak lortzeko. Hori guztia, oso desbardinak diran irudiakaz erakutsi gura da erakusketan. Istripuen prebentzioaren unibertsaltasuna erakusten dauen titara eta orratz baten argazki xumetik, oinetatik bururaino babestuta, zorabioa emoten daben altueratan edo altzairutegian saldaren ondoan behar egiten daben pertsonen irudi deigarrietara.

Ikusten diran irudiak erakusketea bisitauko dabenen arretea erakarteko tresna baliotsua diran arren, irudiakaz batera, segurtasunaren eta osasunaren inguruan gogoetea egiteko konbitea egiten dauen testua dago, izan be, gai horreek oso garrantzitsuak dira, eta kontuan izan behar doguz beharreko eguneroko errutinetan.

Laburbilduta, Bizkaiko Batzarrek uriaren erdialdean dagon erakusketa aretoa eskintzen dabe, beharginen beharreko jardunbideetan prebentzioak dauen garrantziaren inguruan kontzientzia hartzeko mezua Bizkaiko gizartera heldu daiten. Erakusketea maiatzaren 25era arte egongo da zabalik Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura. Sarrera librea izango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
27/04/2017

Las mejores "miradas" de prevención de riesgos laborales en Juntas Generales

Las Juntas Generales de Bizkaia han abierto una nueva exposición en su sede de Bilbao. La muestra fotográfica "Miradas de Prevención" cedida por Mutualia, reúne una treintena de instantáneas seleccionadas entre más de mil fotografías presentadas en las trece ediciones del concurso de fotografía sobre Prevención de Riesgos Laborales que organiza esta mutua. La iniciativa cuenta con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia y Osalan (Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales).

La muestra reúne una visión muy diversa y sugestiva en torno a la prevención y los riesgos que se asumen en los entornos de trabajo, precisamente en víspera de celebrarse el Día Internacional de la Prevención de Riesgos Laborales. A la presentación de la exposición han acudido la presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, el Director de Servicios Administrativos y Operaciones de Mutualia, Jorge Arbaiza, y el Director General de Osalan, Alberto Alonso.

El concurso fotográfico de Mutualia nació en 2004 con el objetivo de promover la cultura de la prevención, concienciar contra la siniestralidad laboral y conseguir entornos de trabajo más seguros y saludables. Todo ello se intenta plasmar en la muestra con la combinación de imágenes muy diferentes. Desde una simple fotografía de un dedal y una aguja, que refleja la universalidad de la prevención de los accidentes, hasta instantáneas impactantes de personas trabajando protegidos de los pies a la cabeza, en alturas de vértigo o junto a proyecciones de caldo en una fundición.

Si bien el imaginario visual es una poderosa herramienta para captar la atención de quienes visiten la muestra, las imágenes vienen acompañadas de un texto explicativo que invita a reflexionar sobre la seguridad y la salud, cuestiones lo suficientemente importantes como para que se tengan presentes en las rutinas diarias de trabajo.

En definitiva, el Parlamento de Bizkaia ofrece así su céntrico espacio expositivo como altavoz para hacer llegar a la sociedad vizcaína un mensaje de concienciación sobre la importancia de la prevención en las prácticas de trabajo de las personas trabajadoras. La exposición permanecerá abierta hasta el 25 de mayo en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja, Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes. La entrada es libre.